

TXITA POLITA

Behin batean, Txita Polita harizti batera joan eta ezkur ale bat erori hariztetik eta, kaxk! Jo du buruan.

–Ene bada! –esan zuen zeharo izutua– Zerua dator goitik behera. Noan Erregeri esatera.

Eta bazihoan, joan Erregerengana eta Oilo Potxolo topatu zuen bidean.

–Egun on, Txita Polita, nora zoaz horren goiz jaikita?

–Zerua dator goitik behera eta Erregeri esatera noa.

–Oh! Noan ni ere zurekin batera.

Eta Txita Polita eta Oilo Potxolo joan, bazihoazten Erregeren jauregira eta Oilar Goiar topatu zuten bidean.

–Egun on, Oilo Potxolo eta Txita Polita, nora zoazte horren goiz jaikita?

–Zerua dator goitik behera eta Erregeri esatera goaz.

–Uh! Noan ni ere zuekin batera.

Eta Txita Polita, Oilo Potxolo eta Oilar Goiar joan, bazihoazten Erregeren jauregira eta Ahate Garate topatu zuten bidean.

–Egun on, Oilar Goiar, Oilo Potxolo eta Txita Polita, nora zoazte horren goiz jaikita?

–Zerua dator goitik behera eta Erregeri esatera goaz.

–Iuju! Noan ni ere zuekin batera.

Eta Txita Polita, Oilo Potxolo, Oilar Goiar eta Ahate Garate joan, bazihoazten Erregeren jauregira eta Antzar Mantzar topatu zuten bidean.

–Egun on, Ahate Garate, Oilar Goiar, Oilo Potxolo eta Txita Polita, nora zoazte horren goiz jaikita?

–Zerua dator goitik behera eta Erregeri esatera goaz.

–Ja-jai! Noan ni ere zuekin batera.

Eta Txita Polita, Oilo Potxolo, Oilar Goiar, Ahate Garate eta Antzar Mantzar joan, bazihoazten Erregeren jauregira eta Indioilar topatu zuten bidean.

–Egun on, Antzar Mantzar, Ahate Garate, Oilar Goiar, Oilo Potxolo eta Txita Polita, nora zoazte horren goiz jaikita?

–Zerua dator goitik behera eta Erregeri esatera goaz.

–Mmm! Noan ni ere zuekin batera.

Eta Txita Polita, Oilo Potxolo, Oilar Goiar, Ahate Garate, Antzar Mantzar eta Indioilar joan, bazihoazten eta iritsi ziren Erregeren jauregira.

–Errege Jauna, Errege Jauna! Zerua ari da puskatzen dena. Agindu ezazu konpon dezaten azkar-azkar.

Erregeak hazka egin zuen bere bizar zurian, urrezko txanpon bana eman zien eta konponduko zuela esan zien. Eta agurtzeko irribarretsu esan:

Eskerrik asko, Txita Polita, Oilo Potxolo, Oilar Goiar, Ahate Garate, Antzar Mantzar eta Indioilar; etorri berriz ere nahi duzuenean.



Bularretik Mintzora. Itziar Zubizarreta. Galtzagorri Elkarte, 2007.

Iturria: Lekuona'tar Manuel "Txuri ta Gorri ta Kikirriki" *Idaz-Lan guztiak*, Kardaberaz Bilduma, 30 (Itziar Zubizarretak moldatua)